

ERRESPETURAKO SINBOLOAK

Zer egin dezakegu herritarrok bizikidetzarako espazioak eraikitzen laguntzeko, errespeturako espazioak eraikitzen laguntzeko?

Eraiki al daiteke hiria sorkuntza konpartituaren logika erabiliz?

Zer egiteko bete dezake arteak gisa horretako prozesuetan?

Nola eragin dezakegu hirien garapenean pentsamenduaren eta hausnarketaren bidez?

Piezaren eta multzo osoaren arteko harremanaz baliatuta, hainbat gai lantzen dira, eta herritarrek egindako ekarpenetan oinarrituta, gizarte-esparruan eragiten da, sorkuntza-lanaren eta partaidetza prozesuen bidez.

Artearen bidez ERRESPETUA bultzatu eta zabaltzea da **RESPETO PROIEKTUAREN** helburua.

ARTEAREN eta ERRESPETUAREN arteko sinergiak eragin-eremu handia du, erlijioan, ideologian, kulturen eta beste hainbat eremutan adieraztekoa baita, bai pertsonen, gizarte-taldeen eta erakundeen aldetik.

RESPETO PROIEKTUAREN azken xedea gizabanakoak eta askotariko giza taldeak elkartzea da, **Errespeturako Sinboloak** sortzen parte hartu eta ERRESPETUAREKIKO jarrera bat erakuts dezaten.

Bertako hiritarrek eta bertara etorritako pertsonak nahiz giza taldeek obra artistiko-plastikoak sortzean datza **RESPETO PROIEKTUAREN** funtsa, elementu bakarrak egitea, **Errespeturako Sinboloak** izango direnak. **Errespeturako Espazioetan** jarriko dira sinbolo horiek, hiriko plaza, parke, kale edo lorategietan.

Pertsona edo giza talde bakoitzak bere sinboloa ezarriko du —marrazki, aztarna, poesia, olerki, musika-nota edo ildo horretako elementuren bat—, norbaiti edo zerbaiti eskainia, berariaz sortutako molde batean. Fundazioak emango du molde hori, eta erraz lantzeko modukoa izango da, edonork, haren adina edo osasun-egoera edonolakoa izanda ere, erraz erabil dezan. Molde hori burdinurtuzkoa izango da, eta 27x27 cm. izango ditu. **Errespeturako Espazioak** deiturikoetan jarriko dira piezak, beste pertsona, entitate edo kolektibo batzuek egindako sinboloekin batera.

RESPETO PROIEKTUAREKIN bat egiten duen edonork parte har dezake proiektuan. Zuk zeuk parte har dezakezu.

Proiektuan parte hartzen duen pertsona eta kolektibo bakoitzak ordainduko du, zuzenean eta bere kontura, pieza bakoitzaren kostua, eta egindako artelanaren

jabeak izango dira, harik eta haiek **Errespeturako Espazioan** deiturikoan jartzen diren arte. Une horretatik aurrera, denbora mugagabea lagako zaio hura Espazioaren jabe den udal edo erakundeari

Bidean ari gara, ziur baikaude mugimendu honek, piezaz pieza, leku bat egingo duela gurean, **RESPETO** izeneko proiektu etiko, estetiko eta lankidetzazko batean gauzatuta.

Udalan gauzatzen bada **Respeto Proiektua**, Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburutzaren baitan antolatzen diren jardueretako bat izan daiteke.

Nahi al duzu Respeto Proiektuaren partaide izan zure hirian? Zatoz. Zure zain gaude.